

URB-073/2019.- IBARZAHARRA 01EKO (AI_IB_RM01) BIDE SISTEMA OROKORREN URBANIZAZIO PROIEKTUAREN INGURUMEN INPAKTUA. ESPEDIENTEA HASTEA ETA JENDAURREAN JARTZEA PROIEKTUA ZEIN INGURUMEN AGIRIA.

Udalbatza Osoak, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hamaseian egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

LEHENENGOA.- *“Trapagarango Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko IB_01, IB_02, IB_03 eta EI_01 eremuei atxikitako edo haietan sartutako bide sistema orokorren urbanizazio-obren”* proiektuaren ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio sinplifikatuaren espedientea hastea, haren sustatzailea Kastrexana Berria SL erakundea delarik. Udalbatza izendatuko da ingurumen eskumena duen egiazko organo gisa, eta emantzat eta aurkeztutzat jotzen da proiektuaren ingurumen-agiri teknikoa.

BIGARRENA.- Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei galdetzea, ingurumen-organo gisa, haien eskura jarritz Kimar Consultores Ambientales S.L.k erredaktaturiko proiektuaren ingurumen-agiri teknikoa eta bide sistema orokorren urbanizazio-obren proiektua, gehienez hamabost eguneko epean erabaki bat eman beharko dutelarik, txosten-eskaera jasotzen dutenetik. Eragindako administrazio publikoak hauek dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritzako Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Saila, helbide hau duena: Ibañez de Bilbao, 20, 48009 Bilbo.
- URA-Uraren Euskal Agentzia, helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina, Urkijo zumalarkalea, 36, 7.a, 48011 Bilbo.
- Trantsizio Ekologikorako Ministerioa (Kostalde eta Itsasoaren iraunkortasunerako Zuzendaritza Orokorra), San Juan de la Cruz plaza z.g. 28071 Madril.
- Euskadiko Kostalde-Demarkazioa. Diego López de Haro kale nagusia, 50, 7.a solairua, 48011 Bilbo.
- Sustapen Ministerioa (Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia). La Castellana pasealekua, 67- 5. solairua, 28071 Madril.

Epe hori amaituta ez bada erabakirik jasotzen, prozedurak aurrera egingo du ingurumen-organoak nahikoa datu badauka ingurumen inpaktuaren txostena egiteko. Kasu horretan ez dira kontuan hartuko gerora jasotzen diren erabakiak.

Ingurumen-organoak nahikoa datu ez balu, eragindako administrazio publikoetatik ez direlako jaso adierazgarriak izan litezkeen txostenak, edo jasota ere, txostenok ez direlako nahiko erabaki bat hartzeko, txostena eman beharko lukeenaren gainetik

dagoen organo hierarkikoaren titularrari eskatuko dio, errekerimendua jasotzen duenetik hamar eguneko epean, eskudun organoari agintzeko hamar eguneko epean dagokion txostena eman dezan, atzerapenaren arduradunak erantzunkizunak edukiko baitu ere.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean jartzea bide sistema orokorren urbanizazio-obren proiektua eta haren ingurumen-agiri teknikoa, proiektuaren baimen-prozeduraren laburpena barne, gutxienez, informazio hau izango duena:

a) 3/1998 Legearen 49 artikulua araututako ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua beharko du proiektuak.

b) Udalbatza da aipatu proiektuari baimena emateko organo eskuduna, eta egokia da Administrazioetako informazioa eskuratzea, ez baitago hirigintza-intereseko bestelako erakunde, elkarte edo talderik, 21/2013 Legearen 1.2.a g) atalaren arabera.

Beraz, 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da hamabost egunez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean edo administrazio honetako egoitza elektronikoa dagokion iragarkiaren azken argitalpena egiten den biharamunetik kontatzen hasita.

Gai honetarako ireki den espedientea ikusgai egongo da Udaletxeko bulegoetan, egokitzen jotzen dutenek begiratu ahal izateko. Epe horretan bidezko jotzen diren alegazioak aurkez dakizkioke espedienteari.

Ebazpen honen aurka, izapidezkoa denez gero, ezin da errekurtsorik jarri, 39/2015 Legearen 112.1.2 artikulua arabera. Hala ere interesdunek aurkakotasuna adierazi dezakete, kontuan har zedin prozedurari amaiera emango dio ebazpenean.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2019ko maiatzaren 21ean.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra